

AITA



VILLASANTE



B2

Sarrera-proba

Idazmena eta mintzamena

Izen-abizenak:

Telefona eta helbide elektronikoa:

Matrikula-zenbakia:

Idazmena

VILLASANTE

Aukeratu proposatutako **gaietako bat**.

Idatzi **180-200 berba** bitarteko testua. **Ez erabili letra handiegia**.

1.gai: Antolatutako opor-bidaia

Egoera:

Gutun hau jaso duzu etxean:

Bezero hori:

Hasteko, eskerrak eman nahi dizkizut aurten ere guregana jo duzulako zure opor-bidaia antolatzeke. Gure helburu nagusia bezeroei ahalik eta arretarik onena eskaintzea izanik, eta kontuan hartuta aurtengo bidaia ez dela zenbait bezeroren gustukoa izan, zure iritzia jakin nahiko genuke.

Besteak beste, jakin nahiko genuke zer iruditzen zaizkizun, oro har, antolatzen ditugun bidaiak: zergatik aukeratzen dituzu antolatutako bidaiak zure oporraldietarako? Aurtengoari dagokionez, jakin nahiko genuke zer iruditu zaizun prestatutako egitaraua, zer aldatuko zenukeen eta zer ez, eta zergatik. Azkenik, zer iruditu zaizkizu eskaini dizkizugun bitartekoak (hotelak, txangoak, gidaria)?

Zure erantzuna laster jasoko dugulakoan, mila esker orain arte guregan jarritako konfiantzarengatik.

Gernika-Lumon, 2018ko irailaren 1ean
MAUKA BIDAIAKeko zuzendaria

Egitekoa:

Erantzun bidaia-agentziako zuzendariari zure iritzia emateko.

2.gai: Diskoteka itxi?

Egoera:

Herrian ez da giro diskoteka dela eta. Bizilagun askok kexa adierazi dute udaletxean, diskotekaren inguruan sortzen diren arazoengatik. Horren ondorioz, eztabaida bizia sortu da jabe, bezero eta herritarren artean. Udala diskoteka ixtea pentsatzen ari da, baina aurretik herritarren iritzia jaso nahi ditu. Zuk iritzia ematea erabaki duzu.



Egitekoa:

Idatzi eskutitza udaleko arduradunari, eta horretarako:

- Esan nolako giroa sortzen den diskotekaren inguruan.
- Azaldu zein den bizilagun, bezero eta jabeen arteko eztabaida nagusia.
- Adierazi ixtearen alde ala kontra zauden eta zergatik.

AITA



VILLASANTE



Mintzamena

Egin zeure buruaren aurkezpena 3-4 minutu inguruan.

Horretarako, erabili puntu hauetako batzuk:

- Izen-abizenak. Zergatik duzu izen hori?
- Ikasketak (oinarrizko hezkuntza, DBH, unibertsitatea...).
- Euskara zure bizitzan (familiar, lagunartean, Interneten, Whatsappetan...).
- Baduzu tituluren bat? Noiz eta non aterata?
- Zergatik zatoz euskaltegira?
- Zure familia (gurasoak, euren lanbideak, aitaita-amamak...)
- Zure bizitzan gertatutako pasadizo barregarriren bat.
- Zure bizitzan gertatutako pasadizo tristeren bat.

Grabatu egingo dugu testua.